

XEHETASUN AZTERLANA : FRONTOIAREN AZALERA ERAIKIA HANDITZEKO
ERAGILEA : LA SALLEKO GURASO ELKARTEA
LEGUA : LA SALLE IKASTETXEA, ZARAUTZ
DATA : 2010KO URTARRILLA
ARKITEKTOAK : MARINA LERTXUNDI MANTEROLA
MAIALEN MAYOZ ITXASO

A.- MEMORIA

- 1.- KOKAPENA
- 2.- GAUR EGUNGO EGOERA
- 3.- GAIA ETA EGITARAUUA
- 4.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN BETETZEA.

B.- PLANOAK

- | | |
|---|--------------|
| 1.- KOKAPENA | 1/5000-1/500 |
| 2.- EGUNGO EGOERA. SOLAIRUAK, ALTXAERAK ETA EBAKIDURA | 1/100 |
| 3.- PROPOSAMENA. SOLAIRUAK ETA EBAKIDURAK | 1/100 |
| 4.- PROPOSAMENA. ALTXAERAK | 1/100 |

XEHETASUN AZTERLANA	: FRONTOIAREN AZALERA ERAIKIA HANDITZEKO
ERAGILEA	: LA SALLEKO GURASO ELKARTEA
LEGUA	: LA SALLE IKASTETXEA, ZARAUTZ
DATA	: 2010KO URTARRILLA
ARKITEKTOAK	: MARINA LERTXUNDI MANTEROLA MAIALEN MAYOZ ITXASO

A.- MEMORIA

1.- KOKAPENA

Zarautzen dagoen La Salleko ikastetxeko frontoia babestea da lan honen helburua.. Dagoen eraikuntza gaur egungo beharretara egokitu nahi da eta horretarako beharrezkoa da jolasleku babestu bat lortzea. Ikastetxeko lurzoruko hego-ekialdean aurkitzen da frontoia eta jolastokitik sarrera du, erabat irekia.

2.- GAUR EGUNGO EGOERA

Gaur egun frontoia 440.55m² eraikiko azalera du. Hiru fatxada itxiak ditu eta jolastokirako fatxada irekia. Estructura metalikozko eta txapazko estalpea du. Paretak, hormigoi armatukoak eta bi aldeetatik margotuak, 10.10m-ko altuera dute y 35m-tako zabalera.

Lurra asfaltikoa da eta bere egoera ez da egokia. Beste elementu guztiak egoera onean daude.

Frontoia baditu euritako urak jasotzeko instalazioa eta elektrizitatea.

3.- GAIA ETA EGITARAUUA

Gaur egungo frontoiaren egoera hobetu nahi da erabilera gehiago emateko. Irekita dagoen aldeak frontoia leku ez egokia eta ez erabilgarria bihurtzen du eguraldi txarra egiten duenean. Lanek barne-jolaslekua haunditu, tapatu eta babestu nahi dute, eskolako atsedenaldira erabiltzeko eta baita kirol erabileretako ere. Ekialdera ere haundituko da barne eta kanpoko, kirol ekipamenduko materialak sartzeko. Estructura berria altzairuzkoa izando da, nagusian HEBko zutabeen gainean zertxak joango direlarik. Nagusiaren gainean beste bigarren esturktura bat ipiniko da altzairu inoxidablezkoa. Honek kristalezko stadip 6+6mm-ko egitura baten euskarri izando delarik, eta eguzki argia sartzen utziko du.

Estalkia txapa prelatatuzkoa izando da. Aroztegia aluminiozkoa izando da txuriz lakatua.

Goiko aldea burdin sarezkoa izango da naturalki airezta dadin frontoia.

Biltegiaren aldea hormigoi ikusizko blokeen bitartez egingo da, kargazko muroak sortuz. Estalkia haunditzearena bezalako izango da, txapa prelatatuzkoa. Sapaia eusteko altzairuzko zertxak ipiniko dira perimetralki, blokeen gainean egingo den hormigoizko zuntxo armatu baten gainean.

Barne altura 5.50m-takoa izango da eta hau barruan erabiliko den kirol ekipamenduek zehazten dutelarik. Gaur egungo lenengo asfaltuko geruza kenduko da, oso egoera txarrean bait dago. Haunditzearekin batera solera berri bat botako da, erabilera anitzentzako egokiagoa den bukaera batekin.

4.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN BETETZEA.

Eraikuntzaren jabeek, gaur egungo eraikuntza mantendu eta hobetzeko, aurrera eraman nahi dute ekintza bat da ,ZHAPO-ko 3.3.01. artikuluan azaltzen den erabiltze, mantentze eta konpontze beharrekin bat eginez.

ZHAPO-ren arabera eraikuntza honek **irakaskuntza erabilera du (4.erabilera 4.mota)**, kirol ekintzetarako erabiliko den La Salleko irakaskuntza multzoaren barneko erabilera konplementario bat delako.

ZHAPO-ko 7. artikuloko hirigintza arauak bete behar dira, gaur egungo eraikuntza eraberritzeko lanak bezala:

Lanak ikastetxearen lurren barne eremuaren barne egingo dira.

Egungo eraikuntzaren altuera mantentzen da. Elementu berrien altuera kirol ekipamenduek behar dutenaren arabera dago. (saskibaloiko saskiak, etab.)

Diseño aldetik hartu diren erabakiak erabilerak eta lekuak eman ditu.

Garbitasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak eraikuntzaren proiektuan azaltzen dira.

Eraikigarritasun Justifikazioa

La Salle Ikastetxeak okupatzen duen lurzatiak 20.852m² ditu. Bertan bi eraikuntza daude:

- Aurre hezkuntzako eraikuntzak 2.407m² eraikiak ditu lau solairutan banatuta; erdisotoa, beheko solairua, lehen solairua eta ganbara.
- Lehen eta bigarren hezkuntzako eraikuntzak 4.528m² eraikiak ditu hauek ere lau solairutan banatuta daude; erdisotoa, beheko solairua eta lehen eta bigarren solairuak. Gainera lehen solairuak 370m² ko ataripea du.

Bestalde lurzatiaren zehar barreiatuta 440.55m²-ko frontoi estalia, bizikletak gordetzeko aparkaleku estalia eta 142m²-ko erdi-lurperatutako aldagela eta kanpoko zerbitzuak aurkitzen dira.

Frontoiari gehitu nahi zaion eraikin berriaren azalera 213.94m²-koa da.

Zarauzko ZHAPO-k dioenez "Eraikinaren barne-birmoldaketako, finkatzeko eta hobekuntzako obrak onartzen dituzte, eta Xehapen Azterlan bat onartuta, sestra gainean gaur egungo eraikigarritasun fisikoa %10 haunditzeko aukera aitortzen zaio berariaz."


Eraikin berriak ez du eraikigarritasunaren %10 gainditzen, beraz, justifikatua geratzen da.

Lerrokadura y sestra-lerroen justifikazioa

Eraikin berriak barrukaldean 5.50m-ko altuera libre du. Bertan erabiliko diren kirol tresnengatik, batez ere saskibaloiko saskiengatik gutxienez 4m-ko altuera beharrezkoa da. Dena den 1.50m gehiago igo da bere kokapena eta itxitura materialengatik. Eraikin berriaren aldamenean kanpokaldeko jokuen zonaldea kokatzen da eta bertan baloian jolasten direnez eraikinaren elementu hausgarriak, hala nola txapazko teilatua eta kanaloia, baloien kolpe hauengandik babestu nahi izan ditugu. Horregaitik altuera 5.50m-tara igo da. Teilatuaren malda %50koa da, barrukaldetik zertxa estrukturalak simetrikoak ikusi daitezten.

ZARAUTZ, 2010-ko Urtarrillak.

Arkitektoak



Marina Lertxundi Manterola



Maialen Mayoz Itxaso